

Bizitza eskolan (M.J.Lera y Olías)

Bizitza eskolan, elkarbizitzaren arazoei buruzko galdera-sorta orokorra da.

Lehenengo atalean ikasleak ea tratu txarrik pairatzen duen ikertzen du, tratu horiek ematen diren lekuarekin jarraitzeko eta, azkenik, galdetzeko modu zuzenean, ea tratu txarrik hartu edo eragin duen, azkenaldi honetan.

Ikertzen du, tratu txar hori eta gero zer gertatzen den, erasotuak ea norbaiti kontatzen ote dion, nori kontatzen dion, ... eta azkenik jolastorduari buruz galdetzen zaie.

Jolastordua EZ zaiela gustatzen erantzuten duten ikasleak, besteekiko harremanetan zailtasunak izaten dituzte.

Gure azterketetan galdera zuzenetan erreparatu dugu: *tratu txarrik pairatu duzu edo tratu txarrik eragin duzu*. Emandako **Baiezkoen** kopurua gelan dauden elkarbizitza arazo edota indarkeriaren adierazle dira. Beste ikaskideekin arazoak izan dituztela erantzuten duten ikasleen kasuetan, ikertu behar dira hasierako galderen erantzunak, non pairatzen ari diren egoeraren erantzunak dauden.

Lehen atalak balizko biktimaren egoeraren informazioa ematen du, eta ikaslea nola ari den egoera bizitzen esaten digu.

Bigarren atalak ikusitako egoerei buruzkoa da. Aztertzeke zaila da erantzun piloa dituelako. Inkestaren egileek proposatzen dute datuak gelan aztertzea, tutoretza edota matematika orduan. Horrela, kopuruen maiztasuna, ehuneko, ... talde txikietan hasieran eta gero talde handian landu ez gero, era eraikitzailean aztertuko dituzte. Partaide sentituko dira eta bere erantzunen balioa ikusiko dute baita esku-hartzearen premia jabetuko da, batez ere jolas guneetan, hor ematen baitira kasu gehienak.

Gainontzeko galderak interesgarriak izanik ere, profesional bakoitzaren esku uzten dugu beren azterketa, baita galdera gehiago sartzeko aukera ere premia izan ezkerro.

BIZIKASI EKIMENA

Bizitza eskolan (M.J.Lera y Olías)

IZENA:.....DATA.....IKASMAILA:.....

Galdera-sorta hau isilpekoa da; irakasleak erabiliko du zuek hobeto ezagutu eta ahal duen neurrian, zuen arteko harremanetan laguntzeko. Dena dela izena ipintzea hautazkoa da.

1.- Azken aste hauetan ikaskideren batekin honelakorik gerta bazaizu, adieraz ezazu.

	BAI	EZ
Iraindu ninduen.		
Zerbait atsegina esan zidan.		
Ostikada bat ematen saiatu zen.		
Desberdina naizelako nirekin sartu zen.		
Jipoituko ninduela esan zuen.		
Ni arazotan sartzen saiatu zen		
Gauza bat utzi zidan.		
Kide bat haserrearazteko jolasa prestatu zuen.		
Txiste bat kontatu zidan.		
Besteen aurka ipin nadin saiatu zen.		
Etxeko lanekin lagundu ninduen.		
Gauza bat kendu zidan.		
Nire akatsak direla eta nire aurka egin zuen.		
Oihu egin zidan.		
Elkarrekin jolastu genuen.		
Oztopatzen saiatu zen.		
Nire kontura barre asko egin zuen.		
Nire gauza bat apurtzen saiatu zen.		
Nitaz gezur bat kontatu zuen.		

BIZIKASI EKIMENA

2.- Duela gutxi erasorik ikusi duzu? Marka ezazu (X) dagokion lekuan.

Eraso motak	Erasoak	Gela	Jolastokia	Komunak	Korridoreak	Eskaileak	Sarrera-irteerak
FISIKOAK	JO, ostikoak, bultzakadak,						
	EBATU gelditzeko.						
	BOTA... harriak, aulkiak, makilak...						
	TXISTUA BOTA.						
HITZEKIN	IRAINAK, BIRAOAK, GOITIZENAK...						
	ZURRUMURRUAK						
HITZIK GABE	KEINU ITSUSIAK						
	IDATZITAKO MEZUAK horman, papertxoetan,...						
	BAKARRIK UTZI: ez zara taldekoa...						
	BARRETXOAK.						
	BEGIRADAK						

Beste eraso mota bat edo beste leku batean ikusi baduzu idatz ezazu hemen:

3.-Erasotua izan zara azkenaldian? BAI EZ

Erantzuna BAI bada, zure ustez zergatik izan da?

4.Norbaiti kontatu diozu? (bakarrik erantzun aurreko galderan BAI erantzun duzenok)

BAI EZ

Erantzuna BAI izan bada, nori kontatu diozu? (bat baino gehiago marka ditzakezu)

- Laguna Tutorea Irakaslea
 Guraso Zuzendari/Ikasketa buru Beste bati

Ez badiozu inori kontatu, zergatik ez? (bat baino gehiago marka ditzakezu)

- Bakarrik konpondu nahi nuen Errepresalien beldur nintzen
 Ahula naizela pentsatuko luke jendeak Beste arrazoiak (zehaztu)

5. Eraso baten lekukoa zara, zer egingo zenuke?

- Begiratu eta ezer egin ez Begiratu eta erasotzailea animatu Laguntzen saiatu
- Irakasle bati esan Erasotzailearekin bat egin Ez-ikusiarena egin

6. Aspaldi honetan norbait eraso duzu? BAI EZ

(Erantzuna BAI bada adierazi zer eta zergatik egin zenuen)

7. Jolastordua, denbora librea, ... gustukoak dituzu? Mesedez, esan zergatik.

Eskerrik asko zure laguntzagatik.

NOVA-RES proiektuaren baitan eta Alcala de Guadairako irakasle zentroak egindako galdetegitik hartuta.